

Julen Zabalza

EHUKO IRAKASLEA

## Estella-Madrid ituna

**L**izarra-Garazi itun zalapartatsua ez zen ezkutuan igaro, eta nahikoa zeresan eman zuen politikaren arlo praktikoan zein nazionalismoari buruzko arlo teorikoan, eskusioari dagokionez, batez ere. Eztabaida interesgarriak sortu ziren, euskal nazionalismoaren barruan ere, halako *naizio itunen* egokitasunaz, eta abar. Gaur egun indarrean dagoen Estella-Madrid itunak, berriz, ez du halako eztabaida interesgarririk pizten, ezkutuan aritu ez arren, eta benetan bitxia, nazio ituna izaki, ez da eskusioaz hitz egiten, eta bai, aitziatik, inklusioaz.

Era horretara, Lizarra-Garazi itunak Nafarroaren erabakitze eskubidea aldarrikatzea eskluientetzat jo zen; eta berriki, Hego Euskal Herri-rako autonomia proiektuaz hitz egitean, Nafarroa jokoan ez zegoela haizatu zuten batzuek. Estella-Madrid itunak, aldiz, bete-betean sartu du Nafarroaren geroa joko politikoan, eta horrek guztiak –Nafarroako Gobernuko presidentziarako prozesuak, alegia– kritika, iruzkin eta eztabaida handiak sortu baditu ere, arlo politikoari egokitu zaizkio, gehienbat. Ez da egon sakoneko eztabaidarik azpian ageri zen nazio arazoaren inguruan.

Izan ere, espainiar nazionalismoaren konnotaziorik gabe, ezin da ulertu Nafarroan ger-



INIGO AZKONA

tatu dena; pentsa ezina egingo litzaguke gauza bera beste autonomia erkidego batean gertatzea, EAEn salbu. Interes politiko nazio interesarekin batera joatea –eta ez interes politiko nazionalaren pean, euskal nazionalismoak batzuetan nahi duen bezala– da *naizio itunaren* ezaugarria, eta itunaren aldeko indarrek ondo jakin dute zer egin behar zen, bai alderdiek zein komunikabideek.

Hala ere, eztabaida handirik piztu ez den arren, Lizarra-Garazikoak bezala, Estella-Madrid itun honek arazo eta auzi berberak

planteatzen ditu –gehi beste batzuk–, oraindik ebatzi gabe gertzen direnak. Horietako bat *naizio frontearen* ideiarri dagokio, eta berari loturik joaten den gizarte zatiketaren arriskua. Arrisku larria, gizarte baten geroa luzaro marka dezakeena eta alde baten garaipenaz kontontzen ez dena. Nazio gatazka eta nazionalismo indartsuak egonik, bestalde, saihets ezina da nazio konfrontazioa, Nafarroan batzuetan ikusi nahi ez den arren. Beraz, nazio konfrontazio politikoari uko egin behar izan gabe, mesedegarria izango litzateke Euskal Herriak duen gatazka politikoari aurre egiteko, herritar guztien iritzia jasoko lukeen itun bat proposatzea, momentuan behintzat nazio gatazkaz gain egongo litzatekeena. ■

« Nazio konfrontazio politikoari

uko egin behar izan gabe,

mesedegarria izango litzateke

Euskal Herriak duen gatazka

politikoari aurre egiteko, herritar

guztien iritzia jasoko lukeen

itun bat proposatzea



Abuztu bueltan izaten dira urtero errepikatzen diren antzerako berri batzuk. Zer eguraldi egin duen, nor hil den, nortzuk banatu diren, oporretan nondik zehar ibili garen, lanerako itzulera nolakoa izango den... Ederra rolloa!

Artea da gero bizi izaten ikastea! Urteekin bat, hobeto edo okerrago, nork bere trukutxoak hartzen ditu –ahalik eta ondoen– bizitzen jarraitu ahal izateko. Gutxi-asko oinarrizko teknikak, ohitura jasagarriak eta errepikatzaileak gutxienez, ikasten ditugu eta horiekin maneiatzen gara ahal dugun moduan. Askotan, teknika koldar samarrak direlakoan nago, eta kasurik onenetan,

## Gure bikotea, kasu

dira, baina hain hauskorak izanik, sarri, gure biziraupenerako arkitektura hauskorrean hondamendia ekar dezakete, esaterako, gure bikotearen bideragarritasunean. Eta bi gauza gertatzen dira, edo gehiago. Bat, bikotearen eskutan pertsonalak diren zutabeak jartzen ditugu, ezjakintasunagatik ziurrenik, eta bi, menpekotasun joko goitik behera onartzen da, esan ala ez. Eta askatasun entrenamendu gutxi egiten dugu, eta kulpak, eta erdi-egia/erdi-gezurra, eta asperraldia, eta sentitzen ez duguna sentitu beharra, eta pobrezia... ■

TXANDAN  
Andoni Mujika